



## **Oier Aranzabalek zuzendu duen 'Margolaria' filma Zinemaldiko Irizar Sarietan lehiatuko da**

Oier Aranzabalek (Zarautz, 1988) bere lehen filma aurkeztuko du Donostiako Zinemaldiaren 66. edizioan. Mikel Urdangarin abeslaria da dokumentalaren protagonista, baina artista bidea da edozein sortzailek buruan dituen gai unibertsalak jorrazteko: sortzetik bizitzaren erabakia, bokazioa, sorkuntzaren prozesua, porrota, bakardadea edo fama.

Aranzabal proiektuaren gidogile taldeko kide ere bada, eta azken bi urteetan Urdangarin grabatzen aritu da bere bizitzako egunerokotasunean (bidaiak, kontzertuak, entseguak...) eta lan horren fruitua da 'Margolaria': "bidaia baten istorioa". Bidaia horrek Urdangarin Buenos Airesera, Edinburgora Londresera eta Okinawara (Japonia) eramana du.

Zuzendariaren ustez, pelikula "ez da Mikel Urdangarinen azken diskoaren making of bat. Ez da hainbat elkarrizketaz apaindutako protagonista omentzeko bideoklipen zerrenda bat. Mikel Urdangarinen dokumentala ere ez da. 'Margolaria', familiaren eta lagunaren babesik gabe, musikatik bizitzeko bere lanpostu finkoa utzi duen pertsona baten istorioa da. Bakardadearen eta kontzertuko jendetzaren arteko dikotomiaren istorioa. Pertsona eta pertsonaiaren arteko harremana kontatzen duen istorioa".

Pelikulan beste sortzaile eta bidaide batzuk ere agertzen dira: Alain Urrutia margolaria, Ángel Celada bateriajolea, Elizabeth Macklin 'The New Yorker' aldizkariko editore ohia eta itzultzailea, Kirmen Uribe idazlea, Jon Bews musikari eskoziarra, Nika Bitchiashvili biolinista georgiarra, Rafa Rueda musikaria edo Anjel Valdés, Elkar diskoetxeko produkzio zuzendaria.

Oier Aranzabal kazetaria da eta, egun Zuzenwegbunea kudeatzen du. Gainera, beste komunikabideetan kolaboratzaile gisa aritzen da. 2012an Lou Topet musika taldea sortu zuen eta Paperezko Kontzertuak proiektuaren promotorea da. Horrez gain, Elkarreko hainbat bideoklip zuzendu ditu.

Maluta Films ekoizpen-etxea Donostian sortu zen 2008an eta orduz geroztik hainbat lan ekoiztu ditu: 'Albaitari' eta 'Menchu Gal' (2012), 'Tres60' (2013), 'Odola Odol' (2015) eta 'Ainarak' eta 'Zutik daukagu arbola', une honetan produkzio fasean daudenak.

Informazio gehiago eta elkarrizketak:

[www.margolariafilm.eus](http://www.margolariafilm.eus) / [prentsa@zinea.eus](mailto:prentsa@zinea.eus)

943 504 206 / 656 713 583

Ines Arrue Unanue – Cristina Tapia Huici